

Zarauzko turismoaren Plan Estrategikoa 2018- 2021 txosten exekutiboa.

Sarrera

- Erabilitako medotologia:


Informazio kuantitatiboaren analisia	Informazio kualitatiboaren analisia
1. Datu estatistikoak: <ul style="list-style-type: none"> - Turismo bulegoa. - Hondartzako informazio puntua. - Ibiltur 2014. - EUSTAT. 2. Erabilera turistikoko etxebizitza pribatuen kopuruari buruzko datuak. 3. Sare Sozialen benchmarking-a.	1. 100 bisitariei elkarrizketak. 2. Sektoreko agenteekin elkarrizketa pertsonalak. 3. Online galdetegiak. 4. Zuzeneko galdetegiak. 5. Herritarren arreta puntua. 6. Udalerriaren aurreko plan batzuen analisia. 7. Antzeko eremu turistikoen analisia.

- Diagnostikoa ondorengo ataletan zehazten da:

- **Datu estatistikoak:**
 - Bisitari kopurua.
 - Jatorria.
 - Urtarokotasuna.
 - Okupazioa.
- **Indarguneak eta ahuleziak.**
- **Planaren helburuak.**
- **Posizionamendua.**
- **VICE eredia.**
- **Ekintza plana.**

Datu estadistikoak


- Informazio kuantitatiboa aztertzeko Zarauzko Turismo Bulegoak emandako datuak erabili dira, baita hondartzako informazio puntuan jasotako datuak ere.
- Aztertutako informazioa: 2006-2016 (11 urte)



Bisitari kopurua (2006-2016)

Bisitari kopuruak behera egin ondoren 2008ra arte, egoerak hoberantz egin du oso bariazio txikiak jasanez 2012tik aurrera. Beraz, 11 urteetako ikuspegi orokor batetik (2006-2016), ez da aldaketa handirik eman.


Jatorria. Top 10-a (2006-2016)



Katalanak dira gehien bisitatzen gaituztenak. Ondoren, madrildarrak eta gipuzkoarrak.

Atzerritarrei dagokienez, Frantziatik jasotzen ditugu bisitari gehien.


Eta Alemania bigarren herrialdea da.



Estatuko bisitariak gehien bisitatzen gaituztenak dira, %56,83.

Euskadiko datuekin konparatuta, pixka bat altuagoa da (Euskadin: %50,00)


Urtarokotasuna (2006-2016)



- Maiatza, ekaina eta uztailan hazkunde joera bat dago, baina azken hiru urteotan uztailan jaitsiera bat ikusi dugu.
- Bestalde, esanguratsua da abuztuan pisua galtzen joan dela ehunekotan, 8 puntu baino gehiago azken 11 urteotan, hain zuzen ere.

Urtarokotasuaren ondorioak:

- 1.go eta 4.go hiruhilabetekoetan ematen dira bisitarien zifra txikienak. 1.go hiruhilabetekoan bisitari kopuruaren ia %50 Estatukoak dira, 4.go hiruhilabetekoan, berriz, ia %38 dira.
- Atzeritarrek ehuneko pisu handiena udako hilabeteetan dute, nahiz eta gehiengoa ez izan. Estatuko bisitariak urte osoan zehar bisitatzen dute herria.
- Euskadiren kasuan, urteko 2. hiruhilabetekoa da etorrera handiena dakarrena Zarauzko turismo bulegora. Gipuzkoa da ehunekotan gehiengoa euskaldunen artean.

Okupazioa (2006-2011)

- Urteroko okupazioaren batezbestekoa kontuan izanik, hotelek dute okupazio ehuneko altuena.
- Hotelen eta pentsioen okupazioa ia 10 puntu igo da azken 11 urteotan. Landa-turismoarenak, aldiz, beherakada txiki bat jasan du, ia 4 puntukoa.
- Okupazio datuak oso altuak dira Euskadikoekin konparatu ezker.

Okupazioaren ondorioak:

- Urtarokotasunaren hobekuntza txiki bat 2014tik aurrera.
- Hoteletan eta pentsioetan: hazkundera.
- Plaza gehiago etxebizitza turistikoetan (602 plaza) hoteletan, ostatuetan eta landa-turismoan baino (600).

Parte-hartze prozesua

Agenteak	Online kanala	Kanal presentziala
Zarauztarrak	18	16 (galdetegia paperean)
Enpresak	3	2
Ostatuak	2	1 (arreta puntua)
Jatetxe, taberna eta besteak	1	3 (elkarrizketa pertsonalak) 3 (ZUREKIN elkarrizketa pertsonalak) 2 (galdetegia) 4 (Zarautz ON)
Komertzioa		9 (Murkil galdetegi pertsonala)
Udaletxea	4	17 (elkarrizketetan/bileretan parte hartu duten pertsonak)
Turismo bulegoko langileak		4

Guztira 89 partehartzaile

Indarguneak eta ahuleziak

Indarguneak

- Zarautz erreferentziatzko marka da.
- Argiñano, enbaxadore handia.
- Era askotariko eskaintza turistikoa, turismo eremua erakargarria egiten duena.
- Ekitaldi agenda zabala.
- Herri zaindua eta eroso.
- Turismoaren sektoreko langile taldea.
- Naturaz osotasunean gozatzeko aukera : itsasoa eta mendia.
- Berezko kultura eta nortasuna: euskara, pintxoak, poteoa, merkataritza, merkatuak,...

Ahuleziak

- Arazoak daude eremuari ezaugarriak lotzeko.
- Zarautz estankatuta.
- Ekitaldiak eta turismo estrategia ez daude lerrokatuta.
- Malekoiko ostalaritzaren eskaintza.
- Mozkor turismoaren agertzearen irudia.
- Ekitaldiak antolatzeke leku baten falta.
- Aparkalekuen eta OTAren arazoak.
- Turismo taldearen egituraketa eta funtzioak ez dira egokienak.

Planaren helburuak

Plan honen helburu estrategiko nagusia ondorengo da:

- **Udalerriaren turismoa dinamizatzeko kudeaketa estrategiak adostu eta finkatu.**

Ondoren, planean definitutako bigarren mailako helburuak definitu dira:

1. Zarautz berriro ere eremu turistiko bikain eta erakargarri bihurtu gaur egungo bisitariarentzat.
2. Urtarokotasun altuko hilabeteetan bultzada bat eman aktibitate turistikoari.
3. Herritarren eta turismoaren arteko oreka bilatu.
4. Zarauzko presentzia areagotu online kanaletan.
5. Turismo jasangarri baten aldeko apustua egin.

Posizionamendua

- Zarauzko irudia definitzen saiatzen den eskema :



ZARAUZ UDALERRIA



Ostalaritza



Kokapen
geografiko
ezinhobea.



Enbaxadore paregabea

VICE eredua

- Analisi sakon baten ostean, (barnekoa zein kanpoko) eta diagnostikoa egin ondoren, turismo eredu berri bat planteatu da Zarautzentzat: **VICE eredu**.
- Zertan datza VICE ereduak?

Publikoak	Helburuak eta funtzioak
Bisitariak	Harrera eman, gogobetetzea lortu eta inplikatu
Turismo industria lokala	Errentagarritasuna eta oparotasuna sortu
Bertako komunitatea Ingurunea	Ongizatea Giroa eta ingurunea zaindu eta hobetu

- Interakzio prozesu oso bat sortu behar da definitutako publiko ezberdinen artean onurak lortzeko.
- Prozesu honetan guztian garrantzitsua da agente guztiek (administrazio publikoak barne) bere ardurak onartzea.
- Bertokoen harrotasuna indartzeko, kudeaketa partekatua behar da. Horrela, errazagoa izango da kudeaketa egokiago eta iraunkorragoa bermatzea turismo eremuan.

Ekintza plana

B. Bisitariak:

1. Plan honetan definitutako targetak identifikatu eta haietara iristea lortu.
2. Eskaintza turistikoa egokitu interes-targetak kontuan hartuz.
3. Kanal ezberdinak jorratu (elkarlanean eta gure kabuz) gure eskaintza helarazteko.
4. Argumentario berri baten sorrera eta hedapena, eremu turistikoaaren posizionamenduarekin bat datorrena eta koherentzia mantentzen lagunduko duena.
5. Online komunikazioaren eta teknologia berrien aldeko apustua egin bisitarien ikuspuntutik.

Ardatz honetan ondorengo atalak landu eta definitu dira:

- ✓ B.1 Helburu Publikoa.
- ✓ B.2 Produktua.
- ✓ B.3 Sustapena eta komunikazioa.

HELBURU PUBLIKOAK

Maila Estrategikoa



1. maila



Nitxoak



Merkatu nagusiak



Aukera merkatuak



2. mailako merkatuak



PRODUKTU NAGUSIAK



Zarauzko hiri-hondartza



Natura-turismoa



Turismo enogastronomikoa



AGENDA

NITXO PRODUKTUAK



Abenturazko turismoa



Interes bereziko turismoa

Surfa



Shopping turismoa

PROMOZIOA eta KOMUNIKAZIOA

Maila estrategikoa



1. Maila



Prensa



Inprimatutako materiala



Atzerriko merkatua



Lehentasunezkoa

Euskadi



Ekintza zehatzak

Estatuko merkatua



I. Industria:

1. Zarauzko Industria Turistikoaren beharrak eta kezak identifikatu.
 2. Ostalaritzako sektorea babestu eta lagundu, hobetzen jarraitzeko eta definitutako helburu publiko berriei egokitzeko.
 3. Ostalaritza sektorean elkarlan handiagoa lortzeko ahaleginak egin.
 4. Ekitaldiak sortzeko garaian, estrategia bat definitu eta ezarri. Gure targetarekin lerrokatu, eta urtarokotasuna gutxitu.
 5. Zarautz surfaren industriako erreferente bihurtu.
 6. Zarauzko merkataritza indartu eta sustatu, turismoarekin elkarlana bultzatuz.
- Ardatz honetan lau lan lerro lantzeko:
 1. Turismo sektorea.
 2. Ekitaldiak.
 3. Surfa.
 4. Merkataritza.

K. Komunitatea:

1. Herritarrak kontzientziatu eta sentibilizatu udalerrian turismo sektoreak duen garrantziaz.
2. Oreka bilatu eta elkarbizitza sustatu bisitarien eta herritarren artean.
3. Kontsultetan edo irekitzen diren komunikazio bideetan, herriko elkarteak integratu .
4. Komunitateak azaltzen dituen kezka jaso eta aztertu.
5. Zarauzko erabilera turistikoko etxebizitza pribatuen gaia landu.

E.C. Ingurunea eta kultura:

1. Zarautz eremu irisgarria izatea sustatu, edonork disfrutatzeko aukera.
2. Jasangarritasuna bermatu eta ekintzak bultzatu herria sustatzeko , bai bisitariei zuzendutakoak, baita herritarrei zuzendutakoak ere.
3. Aparkalekuaren arazoa konpondu.
4. Zarautzek dituen nortasun eta kultura propioak helarazi, babestu eta zaindu, eta bisitaria parte-hartzaile bihurtu.